

Jo baratzeko lili gorri artera;
ta esan arei: «Makur, egun aurrean!»

Baiña, arren, oi ene txindor: ez esna
nire maitea bere lo ederrean!

Erio-lerkai batek jo t'eratsia,
aberri aldez il zan atzo goizean.

Oro kanta-joka, ta, nire maitea
bego lur-zaiña bere lo betikoan.

GAU-OIUAK

Itxi da, jadanik, itzal-eun arrea...
Ezta otsik goian,
ez lerkirik bean;
illuntzeko joaz «burdin-gerrikoa»
da ausi zuzenean,
erdiko mintzean.

Gamitz eta Fika —zuen zori txarra—,
eun gudari datzaz
oiu-min, iltzeaz;
goiko mendixkatik dantzudaz, itunki,
eztarri-ots giar,
bizitz azken indar...

Illunaren baltza, garrasiz betea!
Aizea yatorku
ala gaiztoz kuin-kuin...
Lurrari itsatsiak, eun gudari illagin.
Etsai, i aut iguin,
eriores aiz duin.

Ezta otsik goian, ez lerkirik bean,
baiña eun gudari
oiuka lurrean;
piñudi ondoko ¡parraren ulu
giz-gorpu artean,
dantzari katean.

Etsai odol-gale, ¡fernu biziak
zirimol izukoi
iregan diraki...
Aulik, zauritua naukak illunean;
ez jausten baiña ni,
miña dot ikurdi.

Goietara deiez itzaliz doaz,
atsaren gaiñean,
gudarien espak..
Eun gudari zangar, eun leoi ziranak
aitu dauz balbeak,
ezarriz erpeak.

Ain ete apurra zuen balioa?
Gau-garrasi batez
oro al da amaitzen?
Il arren, gazteak, zuen bular-sua
betikoz ezta aitzen,
aldiz illezkortzen.

EORTZI BAGEA

Ene atsa, sai ozar,
egaz ebillen azkar,
arerioz ordi...
Ta i or intzan gelditu,
luzez intzan otzitu,
luban biren erdi
bai intzan illik jausi.